Aztertzen ari garen kasuan, interes publikoa Telekomunikazioak Antolatzeko abenduaren 18ko 31/1987 Legearen 1.2 artikuluan ezarritakoaren haritik datorkio. Bertan ezartzen denez, “telekomunikazioko zerbitzu zibilek telekomunikazioko behar publiko eta pribatuak asetzea dute helburutzat, ezarritako helburuak lortzeko teknikari eta kalitateari dagokienez ezaugarri egokiak dituzten baliabideen multzo homogeneo batez baliatuz”.

Bestalde, azpiegitura berak berez dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Erriberagoitiko udalerriko Pobesen, 1 poligonoko 338 lurzatian (Eusko Jaurlaritzaren dorrea; “Cotorrillo” onura publikoko mendia; latitudea: 42° 52‴’00′ N; luzera: 2° 56″ 33′ W, eta altuera: 1070 metro), telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzea interes publikokotzat jotzea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Lurzoru urbanizaezin sailkatuta dago lursaila; 7 zona: Aparteko balio zientifikoko edota naturaleko babes zona (Arkamuko mendilerroa), halaxe ezartzen baitu Erriberagoitiko arau subsidiarioetako VII. tituluak (Lurzoru urbanizaezina) 136. artikuluan. Vodafone España, SAk enpresak sustatu du espedientea.

Bigarrena.- Adierazpen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu aurretik legeak agintzen duen udal baimena eskuratu beharra, ez eta udala erabaki hau edo bestea hartzera behartzen ere.

Hirugarrena.- Interes publikokotzat jotzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ezta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik; dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, Erriberagoitiko Udalak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena ematen duen arte. Orduan aurkeztu ahal izango da ebazpen horren aurkako errekurtsoa.

Gasteiz, 2011ko maiatzaren 3a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

El interés público en el supuesto examinado viene dado por lo dispuesto en el artículo 1.2 de la Ley 31/1987, de 18 de diciembre, de Ordenación de las Telecomunicaciones, que establece que “los servicios civiles de telecomunicación tienen por objeto la satisfacción de las necesidades públicas y privadas de telecomunicación mediante un conjunto homogéneo de medios con unas características técnicas y de calidad adecuadas a los objetivos fijados”.

La necesidad del emplazamiento en el medio rural viene determinada por las características propias de la infraestructura.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Declarar de interés público, de conformidad con lo dispuesto en el art. 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, la instalación de una estación base de telefonía móvil en la parcela catastral 338 del polígono 1, Torre del Gobierno Vasco en “Cotorrillo” Monte de Utilidad Pública, y Latitud 42° 52‴’00′ N, Longitud 2° 56″ 33′ W y altura 1070 metros de Pobes, municipio de Ribera Alta, en terreno clasificado como Suelo No Urbanizable, Zona 7.- Zona de Protección de excepcional valor científico y/o natural “Sierra de Arkamo” según el Art. 136 del Título VII.- Suelo No Urbanizable de las Normas Urbanísticas de Ribera Alta, promovido por Vodafone España, S.A.

Segundo.- La presente declaración no exime de la obligación de obtener la preceptiva licencia municipal con carácter previo a la ejecución del proyecto, ni prejuzga el contenido del acuerdo municipal correspondiente.

Tercero.- La declaración de interés público no pone fin a la vía administrativa ni impide su continuación y, consecuentemente, no resulta susceptible de recurso alguno, que únicamente podrá dirigirse contra la Resolución de otorgamiento o denegación de la licencia por parte del Ayuntamiento de Ribera Alta, en calidad de Órgano competente para dictar el acto administrativo que proceda.

Vitoria-Gasteiz, 3 de mayo de 2011.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**2776**

**55/2011 FORU AGINDUA, maiatzaren 3koa, “Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea” sortzen duena.**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean, euskal gizarte zerbitzuen sistemaren hobekuntza eta garapena jorratzen dituen VI. tituluak lanbide praktikan egon behar den dimentsio etikoa eta bioetikoa jasotzen du. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuen eta osasungintzaren alorretan jarduten duten etika batzordeen jardueratik ondorioztatutako aholkuen eta jarduteko argibideen inguruan prestakuntza, ikerketarako ekimenak eta hedatzeko eta zabaltzeko bideak sustatu beharraz hitz egiten du.

Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren bidez, 2009. urtean talde sustatzailearen sorrera bultzatu zuen, Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea eratzeko Araban. Talde sustatzaile horrek prestakuntza prozesua garatu du deliberazioko alderdi teknikoei eta metodologiari buruzko gai zehatzetan, gizarte zerbitzuetako praktikarekin lotuta.

2011ko martxoaren 11ko ALHAOn (30 zk.) 14/2011 Foru Dekretua, martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluarena, argitaratu zen eta, horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan gizartean esku hartzeko etika batzordeak sortzeko eta egiaztatzeko modua arautzen da. Etika batzordeak borondatez sortuko dira, esku hartuko duten administrazio, instituzio, erakunde, zerbitzu edo zentro bakoitzeko (publikoa edo pribatua) organo eskudunek hartutako erabakiaren arabera.

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

**2776**

**ORDEN FORAL 55/2011, de 3 de mayo, por la que se crea el “ Comité de Ética en Intervención Social “ (CEISA).**

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su Título VI, dedicado al desarrollo y mejora del Sistema Vasco de Servicios Sociales, contempla la dimensión ética y bioética, la cual ha de estar presente en la práctica profesional, y se refiere también a la “promoción de la formación, iniciativas de investigación y cauces de difusión y divulgación de las recomendaciones y pautas de acción derivadas de la actuación de los Comités de Ética que actúan en la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ámbito de los servicios sociales y sanitarios “.

La Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Política Social y Servicios Sociales impulsó, durante el año 2009, la creación de un Grupo Promotor que daría lugar al primer Comité de Ética en Intervención Social de Álava, grupo que ha realizado un proceso formativo en cuestiones específicas sobre aspectos éticos y metodología de la deliberación, relacionados con la práctica en los servicios sociales.

En el BOTHA nº 30, correspondiente al día 11 de marzo de 2011, se publicó el Decreto Foral 14/2011, del Consejo de Diputados de 1 de marzo, y por el que se regula la creación y acreditación de los Comités de Ética en Intervención Social en este Territorio Histórico, con carácter voluntario y por acuerdo de los órganos competentes de cada Administración, Institución, Entidad, servicio o centro, público o privado, en los que vayan a intervenir. En la Disposición Final

Bestalde, lehenengo azken xedapenean ("Foru Dekretuaren garapena" izenekoan) Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari ahalmena eman zitzaion, foru dekretu hori garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa.- "Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea" sortzea. Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikita eta organikoki Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren mende egongo da.

Bigarrena.- Honako pertsonak izendatzea sortu berri den batzordeko kide:

- Eva Iturritxa Vélez de Elburgo
- Itziar González de Zárate Ruiz
- Juan José Seoane Osa
- Inmaculada Rodríguez Ramiro
- Mª Angeles Ruiz de Eguino García de Vicuña
- Fernando Cibrian Gutiérrez
- Toñi González Cantalapiedra
- Belén Santamaría Salazar
- Maika Arcellares Díez
- Olga Díaz de Durana Martínez de Zuazo
- Blanca Montiel Iñiguez de Heredia
- Loren Gallardo Nogales
- Maite Varela Febrero
- Monserrat Goicoetxea Salinas
- Brígida Argote Martínez de Lagrán
- Blanca Arrazola Herce
- Olga Antolín Sanz
- Boni Cantero Sevilla
- Arantza Basagoiti Azpitarte

Hirugarrena.- Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2011ko maiatzaren 3a.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

Primera (" Desarrollo del Decreto Foral ") se faculta a la Diputada del Departamento de Política Social y Servicios Sociales para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución del mismo.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que se me confieren:

DISPONGO

Primero.- Crear el " Comité de Ética en Intervención Social " (CEISA), adscrito al Departamento de Política Social y Servicios Sociales, dependiente orgánicamente de la Dirección de Política Social y Servicios Sociales.

Segundo.- Designar como integrantes del Comité que se crea a las siguientes personas:

- Eva Iturritxa Vélez de Elburgo
- Itziar González de Zárate Ruiz
- Juan José Seoane Osa
- Inmaculada Rodríguez Ramiro
- Mª Angeles Ruiz de Eguino García de Vicuña
- Fernando Cibrian Gutiérrez
- Toñi González Cantalapiedra
- Belén Santamaría Salazar
- Maika Arcellares Díez
- Olga Díaz de Durana Martínez de Zuazo
- Blanca Montiel Iñiguez de Heredia
- Loren Gallardo Nogales
- Maite Varela Febrero
- Monserrat Goicoetxea Salinas
- Brígida Argote Martínez de Lagrán
- Blanca Arrazola Herce
- Olga Antolín Sanz
- Boni Cantero Sevilla
- Arantza Basagoiti Azpitarte

Tercero.- Publicar la presente Orden Foral en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2011.– Diputada de Política Social y Servicios Sociales, COVADONGA SOLAGUREN SANTAMARÍA.– Directora de Política Social y Servicios Sociales, AMPARO MAIZTEGUI ALDAY.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**2810**

**Diputatuen Kontseiluak 2011ko maiatzaren 3ko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

**- Foru dekretua:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

37/2011 Dekretua, maiatzaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Arabako Foru Administrazioko agirien erregistroen erregelamendua.

**- Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

235/2011 Erabakia, maiatzaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Saski Baskonia SADekin Fernando Buesa Arenan ACBren 2010eko Superkopa egiteko eta Caja Laboralek Euroleague American Tour 2010ean parte hartzeko izenpetutako hitzarmenean finkatu zen justifikazio memoria eta diru sarrera eta gastuen balantzea aurkezteko epea, 561/2010 Erabakiz onartua.

TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA
LURRALDE OREKAREN SAILA

236/2011 Erabakia, maiatzaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, dirulaguntza ematen zaio Añanako Kuadrillari, Babes Zibileko Zerbitzuaren 2011ko ekitaldiko mantentze gastuak ordaintzeko.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

**2810**

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión ordinaria celebrada el 3 de mayo de 2011.**

**- Decreto Foral:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

Decreto 37/2011, del Consejo de Diputados de 3 de mayo, que aprueba el Reglamento de Registros de documentos de la Administración Foral de Alava.

**- Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

Acuerdo 235/2011, del Consejo de Diputados de 3 de mayo, que aprueba el plazo de presentación de la memoria justificativa y del balance de ingresos y gastos establecido en el convenio suscrito con Saski Baskonia, S.A.D. para la celebración en el Buesa Arena de la Supercopa ACB 2010 y la participación del Caja Laboral en la Euroleague American Tour 2010, aprobado por Acuerdo 561/2010.

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

Acuerdo 236/2011, del Consejo de Diputados de 3 de mayo, que concede a la Cuadrilla de Añana una subvención para sufragar los gastos de mantenimiento del Servicio de Protección Civil del ejercicio 2011.